



JARRAIBIDEEN ESKULIBURUA
HAUTESKUNDE-MAHAIKO KIDEENTZAT

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

 **A21**
2024
hauteskundeak
elecciones



2024KO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

JARRAIBIDEEN ESKULIBURUA HAUTESKUNDE-MAHAIKO KIDEENTZAT

Indarrean dagoen legearen arabera: 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzkoa; ekainaren 19ko 15/1998 Legeak, urriaren 4ko 6/2000 Legeak, martxoaren 28ko 1/2003 Legeak, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa.

Hauteskunde Batzorde Zentralak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak berrikusi dute. Eusko Jaurlaritzaren kontseiluak onetsi du.

 **A21**
2024
hauteskundeak
elecciones



HAUTESKUNDEETAKO EKINTZA NAGUSIEN LABURPEN-TAULA

Bozketa-egunekoordutegia

08:00 etan **MAHAIA ERATZEA**

- Hauteskunde-mahaiko kide izendatutako pertsona guztiak, titularrak zein ordezekoak, **hauteslekuan elkartuko dira** mahaia eratzeko. Mahaia eratzeko beharrezkoak izan ez diren ordezekoak hauteslekitik joan daitezke, mahaiko kideen zerrrenda sinatu ondoren.
- Artekariak **beren egiaztagutunak entregatu** behar dizkiete mahaia eratu dutenei.

08:30 ean **MAHAIA ERATU ONDOREN EGIN BEHARREKOAK**

- Hautestontzia, bozketa-kabina, boto-paperak, bozketako gutun-azalak eta gainerako inprimakiak ondo daudela egiaztatu.
- Mahaiaren **eraketa-akta** idatzi.

09:00 etatik – **20:00** etara **BOZKETA**

- Hautesle bakoitza **identifikatu**.
- Hautesle hori mahaiko hautesle-errolan inskribatuta dagoela **egiaztatu**.
- Boto-emaileari bozketako gutun-azala hautestontzian **sartu** ahal duela esan.
- Boto-emaile bakoitza boto-emaileen zerrrenda zenbakidunean **erregistratu**.

20:00 etan **BOZKETA AMAITU ONDOREN EGIN BEHARREKOAK**

- **Posta bidezko** botoak hautestontzian sartu.
- Mahaiko **kideek** eta artekariak bozkatu.
- Boto-**zenbaketa** egin.
- Mahaiko emaitzak iragarri.
- **Boto-zenbaketaren behin-behineko jakinaraztea** administrazioaren ordezkariari eman, baita eskatzen duten artekari eta ahaldunei ere.
- **Bilkura-akta** idatzi.
- Dokumentazioa, **4** gutun-azaletan sartuta, **epaitegian** entregatu.

ESKULIBURU LABURTUA

1. MAHAIAREN OSAERA

- Hauteskunde-mahaiak bozketa **zuzendu** eta kontrolatu behar du, eta boto-zenbaketa ere egin behar du.
- Mahaiko kideak hiru dira: **hauteskunde-mahaiko lehendakaria eta bi bokal**.
- Mahaiko kide bakoitzari **85 €ko dieta** dagokio eta bozketa-egunean **Gizarte Segurantzaren sistemaren babesa** izango du.
- Hauteskunde-mahaiko lehendakari, bokal eta ordezeko karguak **derrigorrezkoak** dira. **Justifikatu gabe** kargua betetzera ez agertzea **hauteskunde-delitua** izan daiteke.

2. MAHAIA ERATZEA

- Hauteskunde-mahaiko lehendakaria, bokalak eta ordezekoak **08:00**etan elkartuko dira hauteslekuan.
- Nahitaezkoa da lehendakari bat eta bi bokal egotea mahaia eratu ahal izateko. **Mahaia eratu ezin bada**, eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar zaio eta horrek mahaia eratuko duten pertsonak izendatuko ditu.
- Mahaiko lehendakariak **ahalmen** eskusiboa dauka **ordena gordetzeko** eta hautesleen askatasuna bermatzeko. Horretarako, polizia-indarrei laguntza.

3. BOZKETA AURRERA ERAMATEA

- Bozketa **09:00**etan hasiko da eta **20:00**etan amaitu, **etenik gabe**.
- Hauteslekuaren barruan **debekatuta dago hauteskunde-propaganda** egotea. Horrelako propaganda egonez gero, polizia-indarrei kentzeko aginduko zaie.

- Hautesleak bere **identitatea egiaztatu** behar du bere argazkia daukan dokumentu hauetako baten bidez:
 - nortasun agiri nazionala (NAN).
 - pasaporteak.
 - gidabaimena (miDGT aplikaziokoak ere balio du).

Dokumentu horiek, iraungita ere, baliozkoak dira, baina **originalak** izan behar dira.

- Bozketan zehar ikusten bada **hautagaitza baten boto-paperik ez dagoela**, lehendakariak eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar dio, hauteskunde-batzorde horrek berehala eman diezazkion.
- **Boto-emaileak ezin du bozkatu** mahaiko errolda-zerrendan agertzen ez bada. Ez ba da agertzen, soilik bozkatu ahal izango du baldin eta Hautesle-erroldaren Bulegoaren **errolda-ziurtagiri bereziaren edo epai judicial baten** bidez eskubide hori daukala egiaztatzen badu. Ziurtagiri hori ez da pertsonen etxeetara bidaltzen den errolda-txartela.
- Botoa pertsonala eta besterenezina da. Inork ezin du beste baten ordeaz bozkatu.
- Hautesleak **posta bidezko botoa eskatu** badu, ezin du mahaian bozkatu. Posta bidez bozkatzea eskatu duten horiei **errolda-zerrendan beren izenaren eta abizenen aurrean "C" bat agertuko** zaie edo posta bidezko botoaren eskatzaileen **eranskinen** agertuko dira.

4. BOTO-ZENBAKETA

- Bozketa **20:00**etan amaituko da. Ondoren, hautestontzian **posta bidezko botoak sartu behar dira** eta bozkatzeko eskubidea duten **mahaiko kideek eta artekariek bozkatuko** dute. Gero, boto-zenbaketa hasiko da.
- **Boto-zenbaketa publikoa da** eta edonor egon daiteke, baina ezin da oztopatu, ezta erreklamaziorik edo protestarik egin ere.
- Botoak baliodunak edo baliogabeak izan daitezke:
 - **Boto baliodunak** dira **hautagaitzen aldeko botoak** eta **boto zuriak** (boto-paperik gabeko gutun-azalak).
 - **Boto baliogabeak** dira hauteskunde legeak ezartzen dituen horiek, irregulartasunen bat izateagatik.

- Mahaiko lehendakariak eta bokalek erabakiko dute botoa balioduna ala baliogabea den.
- **Baliogabetzat jotako botoak edo erreklamazioa eragin dutenak** mahaiko kideek sinatu behar dituzte eta 1 zk.ko gutun-azalean gorde.

5. BOTO-ZENBAKETAREN AMAIERA

- Boto-zenbaketa amaituta, mahaia bilkura-akta idatzi behar du eta **dokumentazioa** marroi koloreko **4 gutun-azal handitan banatu**:
 - **1 zk.ko gutun-azalean** hauek sartu behar dira:
 - mahaia eraketa-akta originala.
 - bilkura-akta originala.
 - mahaiko hautesleen errolda-zerrenda.
 - boto-emaileen zerrenda zenbakiduna.
 - boto baliogabeak edo erreklamazioa edo zalantza eragin dutenak.
 - aurkeztutako errolda-ziurtagiriak eta epai judizialak.
 - izendapen-orriak edo artekarien egiaztagutunak.
 - **2, 3 eta 4 zk.ko gutun-azalean** eraketa-aktaren kopia bana eta bilkura-aktaren kopia bana sartu behar dira.
- Ondoren, 4 gutun-azalak itxiko dira eta lehendakariak, bokalek eta artekariak sinatu behar dituzte, sinadura gutun-hegalen gainetik idatziz. Gero, gutun-azalak mahaia dagokion **lehen auzialdiko epaitegian edo bake-epaitegian entregatu** behar dira.

AURKIBIDEA

I. MAHAIKO DOKUMENTAZIOA ETA MATERIALA

A) Mahaiko hauteskunde-dokumentazioaren zerrenda	11
B) Boto-paperak, gutun-azalak, hautestontziak eta kabinak.....	12
C) Mahaia dagoen hauteslekuaren egoera begiratzea	13

II. HAUTESKUNDE-MAHAIAREN ERAKETA

A) Mahaiko kideak elkartzea	14
B) Mahaia eratzea	15
C) Administrazioaren ordezkaria	16
D) Artekarien egiaztagutunak jasotzea	17
E) Mahaiaren eraketa-akta	18
F) Lehendakaria eta bokalak	18
G) Artekariak	20
H) Ahaldunak	21

III. BOZKETA

A) Boto-eskubidea egiaztatzea	22
B) Bozketa aurrea eramatea	24
C) Desgaitasunen bat duten pertsonen botoa	25
D) Oharrak mahaiko boto-emaielen zerrenda zenbakidunean	27
E) Bozketan zehar gerta daitezkeen intzidentziak	27
F) Bozketaren amaiera	28

G) Posta bidezko botoa	29
H) Mahaiko kideen eta artekarien botoa	30
I) Boto-emaileen zerranda zenbakiduna sinatzea	30
J) Hautesleentzako bozketa-ziurtagiria	30
K) Hauteslekura sartu edo bertan gera daitezkeen pertsonak	31
L) Hedabideak hauteskunde-kolegio edo hauteslekuetan egotea	31

IV. BOTO-ZENBAKETA

A) Boto-zenbaketa publikoa da	32
B) Boto baliogabeak eta zuriak	32
C) Boto-zenbaketarako prozedura	33
D) Mahaiko emaitzak aldarrikatzea	34
E) Boto-zenbaketaren behin-behineko jakinaraztea	34
F) Bilkura-akta	35

V. DOKUMENTAZIOA PRESTATZEA ETA ENTREGATZEA

A) Dokumentazioa 4 gutun-azal zenbakidunetan banatzea	36
B) Dokumentazioa epaitegian entregatzea	37

ERANSKINA – HAUTESKUNDE-MAHAIAN EGONGO DIREN DOKUMENTUEN EREDUAK

Hauteskunde-mahaiaren eraketa-akta (EREDUA: EHDM/8.1)	40
Hauteskunde-mahaiako boto-zenbaketa behin-behinean jakinaraztea (EREDUA: EHDM/8.2)	41
Hauteskunde-mahaiaren bilkura-akta (EREDUA: EHDM/8.3)	42
Hautesleen zerrenda zenbakiduna (EREDUA: EHDM/8.4) (EREDUA: EHDM/8.4a)	43
Hauteskunde-mahaiko dokumentaziorako gutun-azala (EREDUA: EHDM/8.5)	44
Epailleak jaso izanaren agiria mahaiko lehendakariarentzat (EREDUA: EHDM/8.6)	45
Bozkatu izanaren edo botoa onartua ez izanaren ziurtagiria (EREDUA: EHDM/8.8)	46
Mahaiko lehendakariarentzako gutun-azala, mahai horretan diharduten artekarien egiaztagutunak dituen (EREDUA: EHIA/5.2 zuria)	47
Mahaiko lehendakariarentzako gutun-azala, mahai horretan erroldatutako artekarien egiaztagutunak dituen (EREDUA: EHIA/5.3 horia)	47

 **A21**
2024
hauteskundeak
elecciones





I. MAHAIKO DOKUMENTAZIOA ETA MATERIALA

Jarraibideen eskuliburu hau hauteskunde-mahaiko kideentzat da, hauteskunde-egunean bete behar dituzten eginkizunak nola bete azaltzeko. Komeni da aldez aurretik eta arretaz irakurtzea, eta hauteskunde-egunean eramatea.

Hauteskunde-mahaiko kidea izatea **herritarren betebehar saihestezina** da. Hauteskunde-mahaiko kideak ia 24.000 izaten dira (titularrak eta ordezkook), 2.700 mahai ingurutan banatuta, eta horien parte hartzerik eta ahaleginik gabe ezinezkoa izango litzateke hauteskundeak egitea

A) MAHAIKO HAUTESKUNDE-DOKUMENTAZIOAREN ZERRENDA.

Mahaiak dokumentu hauek izan behar ditu:

1. **Mahaiko hautesleen errolda-zerrenda ziurtatua**, hauteslea erroldan inskribatuta dagoen begiratu ahal izateko. Bozketak-egunaren amaieran ale hori nahitaez sartuko da mahaiak prestatu behar duen 1. gutun-azalean. Erroldako zerrendan azken orduko altak edo bajak edo posta bidez bozkatuko duten hautesleen artean aldaketak izan badira, mahaiak informazio hori agertzen den eranskinak izango ditu (altak, bajak eta posta bidez bozkatuko duten hautesle berriak).
2. Mahaiak dagoen **ataleko kaleen zerrenda** eta mahai horretako hautesleen lehen abizenaren lehen hizkien tarte alfabetikoa. Zerrenda hori jendaurrean egongo da hauteslekuan.
3. Mahaiaren **eraketa-akta** (40 orr.).
4. **Boto-zenbaketaren behin-behineko jakinaraztea** (41 orr.).
5. **Bilkura-akta** (42 orr.).

6. **Boto-emaileen zerrenda zenbakiduna** (43 orr.).
7. **Lau gutun-azal** marroi, mahaiko dokumentuetarako (44 orr.).
8. Mahaiak gutun-azalak entregatu dituela ziurtatzen duen **epaitegiaren egiaztagiria** (45 orr.).
9. **Bozketa-egiaztagirien** (edo bozketa onartu ez izanarena) **koaderno bat** (46 orr.).
10. Mahaiko lehendakariari zuzendutako **bi gutun-azal**; batean, **artekarien egiaztagutunak** egongo dira, eta bestean, mahai horretan errolatuta egon arren beste batean jarduten duten artekarien egiaztagutunak (48-49 orr.).
11. Eusko Jaurlaritzari **braille bidezko boto irisgarria** eskatu dioten pertsonen zerrenda eta braille erabiliz bozkatzeko maletatxoak, mahaia eskatzaileei emateko. Mahaiak behar beste maletatxo ez badauzka, bozketa hasi aurretik horren berri eman behar dio eskualdeko hauteskunde-batzordeari.

B) BOTO-PAPERAK, GUTUN-AZALAK, HAUTESTONTZIAK ETA KABINAK.

1. **Hautagaitzen boto-paperak** aldarrikatze-ordenaren arabera **jarri behar dira** hauteskunde-mahaia dagoen hauteslekuaren barruko altzari edo **mahai laguntzaileetan**, baina mahaitik aparte, ondo zaindu ahal izateko. Hautestontzia dagoen mahaian ez da boto-paperik egon behar.
2. Mahai guztietan **bozketa-kabina bat** egongo da eta horren barruan hautagaitza guztien gutun-azalak eta boto-paperak.
3. Mahaiko lehendakariak egiaztatu behar du hautagaitza guztien boto-paperak eta gutun-azalak une oro **daudela**.
4. Mahai bakoitzean **hautestontzi** bat dago.
5. Hautestontzia **zigilatuta** egon behar da, mahaiko kideak, artekariak eta ahaldunak ohartu gabe inork ireki ez dezan. Zigilua apurtu edo hondatuz gero, lehendakariak bermatu behar du hautestontzia itxita dagoela. Horretarako, eskura daukan edozein elementu erabiliko du.
6. Mahaian **aipatutako elementuetakoren bat falta bada**, lehendakariak eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar dio, batzordeak eman diezaion.

C) MAHAIA DAGOEN HAUTESLEKUAREN EGOERA BEGIRATZEA.

Hauteslekuak bozketa egiteko baldintza egokiak izan behar ditu. Sarrera inisgarria izango da eta libre egongo da hauteslekuan sartzeko eskubidea daukaten pertsonentzat.

Hauteslekuan mahaiko kideentzat behar beste aulki eta mahai egon behar dira. Atalak eta mahaiak behar bezala seinalizatuta egon behar dira.

Braille bidezko botoaren eskatzaileei gune zehatz, inisgarri eta egoki bat eskainiko zaie, beren pribatutasuna bermatzeko. Gune hori eskatzaileari dagokion mahaitik ahalik eta hurbilen egongo da.





II. HAUTESKUNDE-MAHAIAREN ERAKETA

A) MAHAIKO KIDIAK ELKARTZEA.

Hauteskunde-mahaia eginkizun hauek ditu:

- bozketa zuzentzea eta antolatzea.
- boto-zenbaketa egitea.
- hauteskunde-legea betetzen dela zaintzea.

Mahaia hiru pertsonaz osatuta egongo da: **lehendakari bat eta bi bokal**.

Lehendakari, bokal eta ordezeko **karguak derrigorrezkoak dira**.

Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 143. artikulua arabera, hauteskunde-delitua da mahaiko kide izendatutakoak hauek egitea:

- Bozketaren egunean bere funtzioak betetzera ez joatea.
- Legezko arrazoirik gabe mahaitik alde egitea.
- Justifikaziorik gabe, desenkusatzeko edo aurrez abisatzeko betebeharra ez betetzea.

Hauteskunde-delitua zigortu ahal da 3 hilabetetik urte betera arteko espetxealdi-zigorrarekin edo 6 eta 24 hilabete bitarteko isunarekin.

Entzuteko desgaitasuna izan eta zeinu-hizkuntza edo entzumen-protesia erabiltzen duen bat mahaiko kide izendatua bada, pertsona horrek eskualdeko hauteskunde-batzordeari eskatu ahal izango dio berari interprete-zerbitzua edo begizta magnetikoaren zerbitzua jartzeko. Hori eskatzeko epea 7 egunekoa da izendapena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Bi zerbitzu horiek doakoak dira eta Eusko Jaurlaritzak ematen ditu. Dena den, pertsona horiek kargua betetzetik desenkusatzeko eskubidea daukate.

Mahaiko kide bakoitzari hauek dagozkio:

- **85 €ko dieta.**
- **Gizarte Segurantzaren sistemaren babesa**, hauteskundeetan parte hartzegatik gerta daitezkeen intzidentzien eta egoeren aurrean. Babes hori erabili behar izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren hauteskunde zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko duzu, 012 telefono zenbakiaren bidez.
- Lehendakari edo bokal aritzen diren funtzionarioek eta besteren konturako langileek, bozketa-eguna laneguna bada, egun horretako **lanaldirako ordaindutako baimena** izateko eskubidea daukate; eta, bestela, bozketaren **hurrengo egunean lanaldia bost orduz gutxitzeko** eskubidea (Eusko Legebiltzarrenako Hauteskundeen 5/1990 Legearen 45. orr.). Gaueko ordutegian lan eginez gero, bozketa-egunean hasten den gaueko txanda hauteskunde-eguneko lanaldi gisa konputatzen da, eta lanaldia bost orduz gutxitzeko eskubidea hurrengo gaueko txandan erabili ahal da, baldin eta txanda hori hauteskundeen hurrengo egunean bertan hasten bada.

Lehendakariak eta bokalek ezin dute hauteskunde-propagandako legendarik, ikurrik, enblemarik edo lelorik eraman edo erabili.

B) MAHAIA ERATZEA.

Bozketa-eguneko goizeko 08:00etan, mahaiko kide titularrak eta ordezkioak **hauteslekura joan behar dira.**

Hauteskunde-mahaia **goizeko 08.30ak baino lehen eratu behar da**, lehendakari bat eta bi bokal bertan daudela, hau da, lehendakari edota bokal izendatutako pertsonen artetik hiru, kontuan hartu gabe titular edo ordezko izendatuak izan dinen.

Mahaia eratzeko, ezinbestekoa da pertsona horiek bertan egotea.

Lehendakari eta bokal titularrak ordezkatea:

1. Lehendakari titularra agertu ezean, haren lehen ordezkoak ordezkatu du.
2. Lehen ordezko hori ere agertzen ez bada, bigarren ordezkoak ordezkatu du.
3. Aurreko horiek ere agertzen ez badira, lehendakari kargua ordena honen arabera beteko da:
 - 1. bokal titularra
 - 2. bokal titularra

Bokal titularrak agertzen ez badira edo lehendakari kargua hartzen badute, beren ordezkoek ordezkatu dituzte.

4. Mahaia eratzeko **gutxienez hiru pertsona agertu ezean**, artekariak edo bertan daudenak, **goizeko 08:30ak baino lehenago**, eskualdeko hauteskunde-batzordearekin harremanetan jarriko dira, batzorde horrek pertsona bat administrazioaren ordezkari izenda dezan, eta ordezkari horrek, era berean, bertan dauden pertsonen artean mahaiko kide berriak izenda ditzan.
5. **Hala ere, mahaia goizeko 11:00ak baino lehen ezin izan bada eratu**, izendatutako ordezkariak eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar dio eta batzordeak mahai horretarako beste hauteskunde-dei bat egingo du bi egun igaro aurretik (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen 5/1990 Legearen 98.4 art.).

Mahaia eratzeko beharrezkoak izan ez diren ordezkoak hauteslektutik joan daitezke, mahaiko kideen zerrenda sinatu ondoren (HBZren 2024-01-24ko Erabakia).

C) ADMINISTRAZIOAREN ORDEZKARIA.

Bozketa-egunean mahaian laguntzeko Euskadiko Administrazioak izendatutako pertsona da. Hauteslekuan lehen ordutik egongo da eta hauek dira bere eginkizunak:

- Mahaiko-kideei **dietak ordaintzea**.
- **Parte-hartzeari** buruzko **datuak** jasotzea
- **Boto-zenbaketaren behin-behineko jakinaraztearen** ale bat zaintzea
- Behin-behineko **emaitzak** datuak prozesatzeko zentrora **helaraztea**.

D) ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK JASOTZEA.

Goizeko **08:00ak eta 08:30ak bitartean**, lehendakariak eta bokalek artekarien egiaztgutunak jaso behar dituzte. Lehendakariak **konparatu behar ditu** artekariak **aurkeztu dituzten egiaztgutunak** eta mahaiak dituen **izendapen-orriak**, bat datozen ikusteko.

Kopia-paperean bidalitako artekarien egiaztgutunak baliozkoak dira, baita formatu elektronikoan editatuta eta eskualdeko hauteskunde-batzordeak zigilatuta daudenak ere. **Honelakoak gerta daitezke:**

- Artekariak aurkeztutako egiaztgutuna eta mahaiak daukan izendapen-orria **bat ez badatoz**, mahaiak kargua eman ahal dio, baina gertakari hori bilkura-aktan jasota utzi behar du. Artekariak aurkeztutako egiaztgutuna 1. zk.ko gutun-azal marroian sartu behar da.
- Artekariak bere egiaztgutuna eraman arren, **mahaiako dokumentazioan izendapen-orria ez badago**, mahaiak artekariaren identitatea egiaztatuko du eta lehendakariak mahaiaren parte izaten utziko dio. Kasu horretan, artekariak, funtzioak betetzen dabilen barrutiko hauteslea izan arren, ezin du bera akreditatuta dagoen mahaiaren bozkatu.
- Artekariak bere egiaztgutuna eraman ez arren, **mahaiak izendapen-orria badauka**, mahaiak artekariaren identitatea egiaztatuko du eta lehendakariak mahaiaren parte izaten utziko dio. Kasu horretan, mahai horretan bozkatu ahal izango du, baldin eta barruti horretako hauteslea bada.
- Artekaria hauteskunde-mahaiaren **08:30ak pasata agertzen bada**, hau da, eraketa-akta beteta dagoenean, lehendakariak **ezin dio kargua hartzen utzi**, baina mahaiaren bozkatzen utziko dio, baldin eta bere eginkizunak betetzekoa zen barrutiko hauteslea bada.

Artekariak aurkeztutako egiaztgutuna eta mahaiak daukan izendapen-orria bat ez badatoz, edo artekariak egiaztgutuna eraman eta mahaiaren dokumentazioaren barruan izendapen-orria ez badago, horiek bilkura-aktan intzidentzia gisa jaso behar dira.

Hautagaitza bakoitzeko bi artekari baino ezin izango dira mahaiaren parte izan. Hori dela eta, mahaiko lehendakariak aurkezten dizkioten egiaztagutunei zenbaki bana jarriko die, ordena kronologikoari jarraituz. Egiaztagutuna lehenengo aurkeztu duenari emango zaio kargua.

Artekarien egiaztagutunak edo izendapen-orriak bilkura-aktari erantsi behar zaizkio eta 1 zk.ko gutun-azal marroian sartu behar dira (44 orr.). Artekariak aurkeztutako egiaztagutunak izendapen-orriekin bat ez badatoz, edo mahaia dagokion izendapen-orria ez badauka, egiaztagutun horiek ere bilkura-aktari erantsi behar zaizkio eta 1 zk.ko gutun-azal marroian sartu behar dira

E) MAHAIAREN ERAKETA-AKTA.

08:30ean lehendakariak eraketa-akta beteko du (40 orr.) eta **mahaiko kideek eta artekarien** sinatuko dute.

Akta horretan idatzi behar da mahaiko kideak nortzuk diren eta zer kargu betetzen duten, baita artekarien izenen zerrenda eta horien hautagaitza zein den ere.

Akta originala 1 zk.ko gutun-azal marroian sartu behar da eta akta horren kopia bana 2, 3 eta 4 zk.ko gutun-azaletan.

Lehendakariak aktaren kopia bana emango die eskatzen duten artekari eta ahaldunei. Hautagaitza bakoitzeko akta bakarra emango da.

Lehendakariak kopia emateari uko egiten badio edo berandu ematen badu, eragindakoak protesta bat egin ahal du, protesta-idazki beraren bi ale aurkeztuz. Protesta-idazkiaren ale bat hauteskunde-dokumentazioari erantsiko zaio eta beste alea interesdunak bidaliko dio lurralde historikoko hauteskunde-batzordeari.

F) LEHENDAKARIA ETA BOKALAK.

1. Eginkizunak:

Lehendakariak **eragotziko** du:

1. Hautesleketan eta horien inguruan **hauteskunde-propaganda** egitea eta **hautesleei** bozkatu aurretik beren botoaren inguruan **galdetzea**.

2. Hauteslekuetara sartzea **oztopatzen** duten taldeak eratztea. Debekatuta dago inguruetan boto-eskubidea askatasunez erabiltzeko oztopo izan daitekeen inor egotea.
3. Hauteslekuetan edo hauteskunde-kolegioetan hautagaitzen **boto-paperak banatzea**.
4. Hauteslekuetan **armekin** edo arma gisa erabil daitezkeen tresnekin sartzea. Hori gertatuz gero, lehendakariak pertsona hori kanporatzeko aginduko du.

2. Lehendakariaren eta bokalen agintea:

Hauteslekuaren barruan lehendakariak dauka **ordena publikoa mantentzeko** eta hautesleen askatasuna eta legea betetzen dela bermatzeko **aginte eskusiboa**. Gainera, botoa askatasunez emateko eskubidea bermatzeko eta hauteslekuetako sarbideetan zein haien inguruetan ordena mantentzeko hartu beharreko neurriak hartu behar ditu. **Polizia-indarrek lehendakariari** eskatzen dien **laguntza emango diote**.

Agintari batek ere ezin ditu atzeman mahaiko kideak eta artekariak, beren eginkizunak betetzen dabilzan orduetan, delitua ageri-agerikoa denean izan ezik (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako buruzko 5/1990 Legearen 108.5 art.).

Mahaiko lehendakariak bilkura-aktan (42 orr.) jasota utzi behar ditu hauteslekuaren ordena nahastu duen edozein gertakari eta hori eragin duen pertsonaren izen-abizenak.

3. Bozketan zehar lehendakariaren eta bokalen presentzia eta absentzia:

1. Lehendakaria eta bokalak hauteslekuan egon behar dira etengabe goizeko 08:00etatik boto-zenbaketa amaitu eta horren ondorengo egin beharrak egin arte.
2. Aldi baterako eta justifikatutako kausa batengatik mahaitik alde egin dezakete, baldin eta mahaian **mahaiko kideetako bi badaude**.

G) ARTEKARIAK.

Artekariak lagundu behar dute bozketa eta boto-zenbaketa behar bezala egin daitezen, eta zaindu behar dute hauteskunde-ekintzak legean ezarrita bezala egiten direla.

Bozketa egiten den bitartean, artekariak dauzkaten errolda-zerrendak hauteslekuaren barruan egon behar dira. Bozketa amaituta, eraman ahal dituzte, legeak baimentzen dituen helburuetarako erabiltzen badituzte.

Artekariak hauek **egin ditzakete**:

1. Dokumentu hauen **kopiak eskatu**:

- mahaiaren eraketa-akta (40 orr.), bilkura-akta (42 orr.) eta boto-zenbaketa behin-behineko jakinaraztea (41 orr.)
- edo aurreko guztien alderdi jakin batekoa.

Hautagaigaitza bakoitzari kopia bakarra baino ezin zaio eman.

2. Modu publikoan **erreklamatu**, hauteslearen **identitatearen** gaineko **zalantza** badago.

3. Hautesleen zerrenda zenbakidun batean (boto-emaielen zerrenda zenbakiduna ez den batean), **izen-abizenak idatzi** bozketa-ordenaren arabera.

4. Lehendakariak boto-zenbaketa egitean irakurritako **boto-papera aztertu**.

5. Mahaiak erabakia hartzen duen edozein hauteskunde-ekintza dela eta, **protestazea eta erreklamaztea**. Protesta edo erreklamazio hori bilkura-aktan jasota geratzeko eskubidea daukate (42 orr.).

6. Beren eginkizunak betetzen dabiltzan mahaiari **bozkatu**, saioaren amaieran, baldin eta mahaiari dagokion barrutiko hautesleak badira.

7. Beren alderdi politikoaren izena, siglak eta ikurra dauzkan **enblema edo itsasgarri bat eraman**, horretan ARTEKARIA-INTERVENTORA edo INTERVENTOR agertzen dela, identifikatzeko. Dena den, debekatuta dago alderdi politikoek beren artekarientzako uniforme edo janzkera espezifiko bat diseinatzea, baita sinbolo alderdikoiak dituzten janzkerak erabiltzea ere (HBZren 2016-06-15eko eta 2017/11/24ko erabakiak).

H) AHALDUNAK.

Ahaldunek hautagaitza ordezkatzeko dute hauteskunde-ekintza guztietan. Mahaietan libre sar daitezke eta horietan egon, beren identitatea eta ahalduntzea mahaiko kideen aurrean egiaztatu ondoren. Ahalduntzea egiaztatzeke bi modu daude: notarioaren egiaztatze baten bidez edo hauteskunde-batzordearen idazkaritzak emandako egiaztatze baten bidez. Mahaiak egiaztatu beharko du ahalduntze-egiaztatutuna zuzena den.

Ahaldunek **artekariaren ahalmen eta muga berberak dituzte, baina errolaren arabera dagokien mahaian baino ezin dute bozkatu.**

Artekariak bezala, horiek ere eraman dezakete beren alderdi politikoaren izena, siglak eta ikurra dauzkan enblema edo itsasgarria, horretan AHALDUNA-APODERADO edo APODERADA agertzen dela.

Lau ahalduntze mota daude:

1. **Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordearen Idazkaritzak ematen duen ahalduntze-egiaztatutuna:** ahaldunari bere eginkizunak lurralde historiko batean baino gehiagotan betetzeko ahalmena ematen dio.
2. **Lurralde historikoko hauteskunde-batzordearen Idazkaritzak ematen duen** egiaztatutuna: eginkizunak kasuan kasuko lurralde historikoan betetzeko ahalmena ematen du.
3. **Eskualdeko hauteskunde-batzordearen Idazkaritzak ematen duen** egiaztatutuna: eginkizunak batzorde horretako hautesbarrutietan betetzeko ahalmena ematen du.
4. Ahalduntzea egiaztatzen duen **notarioaren eskritura publikoa.**



III. VOTACIÓN

Bozketa **09:00etatik 20:00etara izango da** etenik gabe. Bozketa hasiko da mahaia eratu ondoren. Lehendakariak hau esan behar du: “bozketa hasi da” edo “empieza la votación”.

A) BOTO-ESKUBIDEA EGIAZTATZEA.

1. Identifikazioa:

Hautesleek beren burua identifikatu behar dute beren argazkia agertzen den dokumentu hauetako bat erakutsiz:

- NANA
- pasaportea
- gidabaimena (miDGT aplikaziokoak ere balio du)

Iraungitako dokumentuak erabiliz bozkatu daiteke, baldin eta boto-emailearen identitatearen inguruko zalantzarik ez badago. NANA izapidetzen ari delako ziurtaginiarekin ezin da bozkatu, ezta dokumentuen fotokopiekin ere. Dokumentu **originalak** erabili behar dira.

Mahaiak boto-emailearen identitatea egiaztatzeari buruz ezarrita dagoena ez betetzea hauteskunde-delitua edo arau-hauste administratiboa izan daiteke. Delitua bada, 3 hilabetetik urte betera arteko espetxealdiarekin zigor daiteke edo 6 eta 24 hilabete bitarteko isunarekin (Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoaren 143. art.). Arau-hauste administratiboa bada, isun ekonomikoarekin zigortuko da (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 132. art., abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa).

Bozkatzeko, hautesleak bozketa-egunean **18 urte** beteta izan behar ditu eta mahaiko **errola-zerrendan inskribatuta egon**.

2. Hauteslea errolda-zerrendan inskribatuta dagoela egiaztatzea:

Boto-emailea errolda-zerrenda **agertzen ez bada**, bozkatu ahal izango du hauetako bat aurkezten badu:

- **Erroldan altan egotearen errolda-ziurtagiri berezia**, horrek egiaztatzen baitu mahaiko erroldan egoteko eskubidea daukala mahaira bidalitako zerrendan agertu ez arren. Erroldan altan egotearen ziurtagiria **EZ DA** pertsonen etxeetara bidaltzen den **ERROLDA-TXARTELA**.
- Boto-emailearen mahaiko erroldan agertzeko eskubidea egiaztatzen duen **epai judiziala**.

Salbuespenez, hautesleak akats materialak zuzentzeko den errolda-ziurtagiri berezia aurkez dezake. Hori ematen da pertsona mahaiko zerrendan agertu arren horren datuetan akats materialen bat dagoenean (izena, abizenak, helbidea edo jaiotze-data, ...).

Hautesle-erroldaren Bulegoak emandako errolda-ziurtagiri berezi horiek, altan egotearena zein akatsak zuzentzeko dena aurkezteko, originala edo kasuan kasuko udalaren bidez faxez jasotakoa aurkez daiteke, biek balio dute eta.

Aurkeztu diren errolda-ziurtagiri bereziak eta epai judizialak 1 zk.ko gutunazalean sartu behar dira gainerako hauteskunde-dokumentazioarekin batera (44 orr.).

Horrez gain, hauek guztiak kontuan hartu behar dira:

· **Akreditatuta dauden mahaian bozka dezakete hauek:**

- **Artekariak beren eginkizunak betetzen dabiltzan mahaian bozkatuko dute**, baldin eta mahaia dagokion hautesbarrutiko hautesleak badira. **Ezin izango dute bozkatu inskribatuta dauden erroldaren arabera beraiei dagokien mahaian.**
- **Artekariak, akreditatuta dauden mahaiko erroldan badaude**, mahai horretan bozkatuko dute, mahai horretako hautesleak baitira.

· Erroldan egon arren, **ezin dute mahaian modu presentzialean bozkatu hauek:**

- **Posta bidezko botoa eskatu dutenek**, nahiz eta mahaiko erroldan agertu. Posta bidezko botoaren eskatzaileen izenen ondoan errolda-zerrendan "C" hizkia agertzen da, edo bestela errolda-zerrendaren eranskin batean zerrendatuta agertzen dira.
- Mahai horretan eginkizunak betetzen dabiltzan arren, **mahai horren hautesbarrutia ez den batean erroldatuta dauden artekariak**, hautesbarruti horretako hautesleak ez izateagatik.

Artekariak **hauteskunde berean behin baino gehiagotan bozkatzea hauteskunde-delitua da.**

B) BOZKETA AURRERA ERAMATEA.

Botoa isilpekoa da. Hautesleak, nahi badu, hauteskunde-kabina erabil dezake.

Hautesle bakoitza mahaira hurbilduko da eta **bere izen-abizenak esango ditu.**

Bokalek eta artekariak **hautesleen errolda-zerrenda** begiratuko dute egiaztatzeko pertsona horrek bozkatzeko eskubidea daukan. Artekariak ere nahi baldin badute egin ahal izango dute egiaztapen hori.

Identitatea egiaztatu ondoren, boto-emaileak bozketako gutun-azala lehendakariari eman behar dio. Lehendakariak, une oro bozketako gutun-azala agerian duela, ozenki esan behar ditu pertsona horren izena eta abizenak eta "bozkatzen du" esanez gutun-azala eman behar dio boto-emaileari hauteslearen sar dezan.

Artekari, ahaldun edo boto-emaile batek erreklamazio bat eginez gero, beste boto-emaile baten identitatearen inguruko zalantzak dituelako, lehendakariak eta bokalek gehiengoz hartuko dute erabakia, identitatea egiaztatzen duten dokumentuak eta presente dauden boto-emaileen lekukotza kontuan hartuta.

C) DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN BOTOA.

Mahaiko kide izendatutako pertsonen ardura da desgaitasunen bat duten hautesleek ahalik eta autonomia eta irisgarritasun handienarekin bozkatzeko dutela zaintzea, eta hori lortzeko egin beharreko egokitzapenak egin beharko dituzte. Mahaiko kideek kontuan hartu behar dute pertsona horiek autonomoak eta independenteak direla. Hauteslekua irisgarria bada, desgaitasunen bat duen pertsona zailtasunik gabe moldatuko da eta laguntza eskainiko zaio soilik laguntza behar duela ikusten bada. Horrelakoetan, galdetu behar zaio nola lagundu ahal zaion.

Administrazioaren ordezkariak edo polizia-indarrek hauteslekuan zehar gida dezakete, desgaitasuna duen pertsonak hala eskatzen badu.

Irakurtzen ez badaki edo gutun-azala entregatzea eragozten dion desgaitasun fisikoren bat badauka, bere konfiantzazko pertsona batekin joan daiteke, pertsona horrek gutun-azala entrega dezan.

Mahaiko kide, artekari edo ahaldun batek uste badu hauteslea ez dela bere borondatez, askatasunez eta kontzientzia osoz bozkatzeko ari, hori bilkura-aktan agertzeko eska dezake, baina horrek ez du eragozten botoa hautestontzian sartzea. Aktan hauteslea identifikatuta agertuko da erakusten duen dokumentuaren zenbakiarekin (NANA, ...).

1. Gorrak edo entzuteko desgaitasuna daukaten pertsonak:

Entzuteko desgaitasuna duten guztiak ez dira berdin komunikatzen: batzuek zeinu-hizkuntza erabiltzen dute eta beste batzuek ahozko hizkuntza maila desberdinetan. Mahaia osatzen duten kideek entzuteko desgaitasuna duten hautesleekin une oro begiz begiko kontaktua izan behar dute, poliki hitz egin behar diete eta beharrezkoa izanez gero, idatzi ere egin dezakete.

Gorrenekin zeinu-hizkuntzaren interpretari bat badago, mahaiko kideek beti hautesleari hitz egin behar diote eta ez interpretariari.

Gor-itsuak badira, hitz egiteko zailtasunak izan ditzakete edo laguntzeko pertsona baten beharra izan dezakete. Horrelakoetan, mahaiko kideek besoa eskaini behar diote horretan berma dadin. Itsu-txakurrak eta laguntza-txakurrak ezin dira horien beharra duen pertsonarengandik banandu eta ez zaie molestatu edo distraitu behar.

2. Desgaitasun intelektuala edota ulertzeko zailtasunak edota autismoaren espektroko nahasmendua:

Mahaiko kideek zuzenean hitz egin behar diote, modu argian eta errazean. Beharrezkoa izanez gero, informazioa errepikatuko da eta ulertu dutela egiaztatuko da.

3. Braille sistemaren bidezko boto irisgarria:

Ikusteko desgaitasuna duten pertsonak, braille sistema ezagutzen badute, Eusko Jaurlaritzari boto irisgarria eskatu ahal diote.

Mahaiko lehendakariak edo bokalek **bozkatzeko maletatxoa** emango diote eskatu duenari. Horren aurretik, **egiaztatu** behar dute pertsona hori boto **irisgarriaren eskatzaileen zerrendan inskribatuta dagoela**. Horretarako NANA edo beste identifikazio-dokumentu bat erakusteko eskatuko diote.

Bozkatzeko maletatxoaren barruan gutun-azal bat dago eta horretan idatzita dago tintaz eta braillez zer hauteskunde diren eta bozketa-eguna zein den. Gutun-azal horren barruan daude jarraibideak braillez idatzita, bozketako gutun-azal normalizatu bat eta hautagaitza bakoitzeko gutun-azal bat tintaz eta braillez. Hautagaitza bakoitzeko gutun-azalen barruan kasuan kasuko hautagaitzaren boto-paper normalizatuak daude eta horri esker identifikatu dezakete nahi duten aukera autonomiaz eta isilpekotasunez.

Mahaia osatzen dutenek erraztu behar diote hauteslekuaren barruan prestatutako gunera sartzea, eta hor mahai bat eta aulki bat egongo dira dokumentazioa erabiltzeko. Botoa aukeratuta, hauteslea mahaira itzuliko da eta bozkatzeko ohiko prozedurari jarraituko dio. Bozkatu ondoren, komeni da hautesleak maletatxoa eta dokumentazioa eramatea, botoaren isilpekotasuna bermatzeko.

Nahiago badu, pertsona horrek maletatxoa hauteslekutik kanpora eraman ahal du eta geroago mahaira bozkatzera itzuli.

Gainera, bere konfiantzako pertsona batek laguntza eman ahal dio bozkatzeko.

D) OHARRAK MAHAIKO BOTO-EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNEAN.

Bokalek, boto-emaileen **zerrenda zenbakidunean**, (43 orr.) boto-emaileen **izen-abizenak idatzi** behar dituzte bozketa-ordenaren arabera horien errolda-zerrendako zenbakiarekin. "ZIURTAGIRIA" edo "EPAIA" hitzak idatzi behar dituzte, bozkatzeko eskubidea horien bidez egiaztatu bada.

Hautesleek egiaztatu ahal dute zerrendan beren izen-abizenak ondo idatzi dituzten.

E) BOZKETAN ZEHAR GERTA DAITEZKEEN INTZIDENTZIAK

1. Bozketa etetea:

Lehendakariak bozketa eten behar du **hauteslekuan hautagaitzaren baten boto-paperak falta badira**. Ahaldunek edo artekariak ezin badituzte boto-paperak eman, mahaiko lehendakariak eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinaraziko dio, batzorde horrek berehala eman diezazkion.

Bozketari berriz ekingo zaio boto-paperak jasotzen direnean. **Bozketa ordu betez baino gehiagoz eteten bada**, lehendakariak, mahaiko kideei entzunda, zenbat denboraz luzatuko den erabakiko du.

2. Bozketa bertan behera uztea:

Bozketa ezinbesteko kausagatik baino ezin da bertan behera edo hasi gabe utzi.

Bozketa bertan behera uztea mahaiko lehendakariaren **idazki arrazoituaren** bidez erabaki behar da. Lehendakariak berehala bidali behar du idazkiaren kopia lurralde historikoaren hauteskunde-batzordera, alegatutako arrazoiak egiaztatu dituzten.

Bozketa bertan behera uzten bada, **emandako botoak** deuseztatu behar dira.

3. Erreklamazioak eta kontsultak hauteskunde-mahaiari:

1. Hautesleek erreklamazioak mahaiari egin ahal dizkiote kasu hauetan:
 - mahaiak hauteslearen **boto-eskubidea egiaztatzeari** uko egiten badio,
 - hautesleak beste **hautesle baten identitatearen inguruan zalantzak** baditu.
2. Artekariak eta ahaldunek boto-eskubideaz gabetzen duen edozein bozketa-ekintzari buruzko erreklamazioak eginez gero, **mahaiak erabakia gehiengoz hartuko du**. Mahaiak hartzen duen erabakia eta erreklamazioaren arrazoia bilkura-aktan jasota geratu behar dira (Eusko Legebiltzarrenako Hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 106.4 art., abenduaren 23ko 11/2015 Legeak onartutako testuaren arabera).
3. Lehendakariak bakarrik onartu behar ditu boto-eskubidearen erabileratik eratorritzen diren kontsultak eta artekariak eta ahaldunek egiten dituztenak. **Hautesleek kontsultak eskualdeko hauteskunde-batzordeari aurkeztu ahal dizkiote**.
4. Hauteslea tematzen bada mahaiak bere erreklamazioa edo kontsulta onartzearekin, eta erreklamazioa edo kontsulta atal honetako lehenengo paragrafoan jasota ez dagoen arrazoi batean oinarritzen bada, lehendakariak, iritziz aldatzeko eskatuko dio. Lortu ezean, polizia-indarren laguntza eska dezake pertsona hori hautesleakutik ateratzeko.

F) BOZKETAREN AMAIERA.

20:00etan, mahaiko lehendakariak ahoz gora "bozketa bukatzen da" edo " se va a concluir la votación" esango du eta ez dio beste inor gehiagori hauteslekuan sartzen utzi behar. Galdetu behar du ea bertan dauden hautesleen artean norbaitek oraindik bozkatu ez duen. Hala bada, bozkatzeko utziko diete.

Bozketa ordu betez baino gehiagoz eten behar izan bada, bozkatzeko ordutegia luzatuko da lehendakariak, mahaiari entzun ondoren, erabakitzen duen denboraz.

G) POSTA BIDEZKO BOTOA.

1. Irekitzea eta hautestontzian sartzea:

Bozketa amaituta, lehendakariak Espainian bizi direnen **posta bidezko botoen gutun-azalak** aztertu behar ditu, **ordu horretara arte mahaian entregatu direnak**. Egiaztatu behar du gutun-azal bakoitzak posta-bulegoaren zigilua daukala, posta ziurtatuz bidali dela ziurtatzen duena.

Era berean, aldi baterako atzerrian bizi direnen posta bidezko botoen gutun-azalen kasuan, egiaztatu behar du atzerriko posta-bulego baten zigilu-marka edo inskripzio ofiziala agertzen dela. Horrek ziurtatu behar du botoa bozketa-egunaren aurreko hirugarren eguna baino lehen bidali dela.

Bi kasuetan, gutun-azalak posta ziurtatuaren zigilurik ez badu edo zigiluaren arabera denboraren betekizuna betetzen ez bada, botoa ireki gabe errefusatuko da eta deuseztatuko da, salbu eta inpugnatzen bada.

Ondoren, lehendakariak onartutako gutun-azalak irekiko ditu eta Hautesle-errolaren Bulegoak emandako **errola-ziurtagiria aterako du**. **Begiratu behar du pertsona errola-zerrendan inskribatuta dagoen** eta ea posta bidezko botoaren eskatzaile moduan agertzen den. Ondoren, **lehendakariak botoa barruan duen gutun-azala hautestontzian sartu behar du** eta zerrenda zenbakidunean (43 orr.) idatzi.

2. Ez onartzea:

Mahaia ez du posta bidezko botoa onartu behar kasu hauetan:

- Posta bidez bozkatzen duena **mahaiko errola-zerrendan inskribatuta ez badago**.
- Mahaira zuzendutako gutun-azalaren barruan Hautesle-errolaren Bulegoak emandako **errola-ziurtagiria ez badago**.
- **Posta bidezko botoaren eskaera** ez badago mahaiko errola-zerrendan edo bere eranskinean **idatzita**.

Horrelakoetan, posta bidezko botoa ez da hautestontzian sartzen eta ez du boto baliodun, boto baliogabe edo boto zuri bezala kontatzen, ezin baita kontabilizatu. **Posta bidezko botoa barruan daukan gutun-azala deuseztatu behar da**, salbu eta inpugnatzen bada.

3. Inpugnatzea:

Posta bidezko botoak **banan-banan** inpugnatu behar dira. Ez da onartzen posta bidezko boto guztiak inpugnatzea. Mahaiak gehiengoz erabakiko du inpugnazioa onartzen duen ala ez.

- **Onartzen ez badu**, lehendakariak bozketako gutun-azala hautestontzian sartuko du, eta mahaira zuzendutako gutun-azala eta errolda-ziurtagiria gordeko ditu dokumentazioari eransteko. Bilkura-aktan (42 orr.) jasota geratu behar dira mahaiaren erabakia eta inpugnazioaren arrazoia.
- **Mahaiak onartzen badu**, ez da bozketako gutun-azala hautestontzian sartuko. Gutun-azal hori, mahaira zuzendutako gutun-azala eta errolda-ziurtagiria 1 zk.ko (44 orr.) gutun-azal marroian sartu behar dira, lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak inpugnazioari buruz erabaki dezan. Mahaiak inpugnatzea onartu duen posta bidezko botoa ez da konputatzen, ez boto baliodun, ez baliogabe, ez zuri gisa.

H) MAHAIKO KIDEEEN ETA ARTEKARIEN BOTOA.

Ondoren, mahaiko kideek eta jarduten dabiltzan barrutiko hautesleak diren artekariak bozkatuko dute. Zerrenda zenbakidunean (43 orr.) zehaztu behar da zein mahaitan bozkatu beharko zuten mahaiko erroldan agertzen ez diren artekariak.

I) BOTO-EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNA SINATZEA.

Bozketa amaituta, bokalek eta artekariak boto-emaileen zerrenda zenbakiduna (43 orr.) sinatu behar dute, orri guztien marjina eta idatzita dagoen azken izenaren azpian.

Zerrenda zenbakiduna 1 zk.ko gutun-azal marroian (44 orr.) sartu behar da.

J) HAUTESLEENTZAKO BOZKETA-ZIURTAGIRIA.

Nahi duenak mahaiko lehendakariari eskatu ahal dio bozketa-ziurtagiria edo botoa onartu ez izanaren ziurtagiria, eta hori lehendakariak edo bokaletako batek sinatu behar du.

K) HAUTESLEKURA SARTU EDO BERTAN GERA DAITEZKEEN PERTSONAK.

- boto-emaileak eta haiei, behar badute, laguntza eman behar dietenak
- hautagaitzen lurralde-ordezkariek
- aldarnikatutako hautagaiak
- artekariak eta ahaldunak
- notarioak, hauteskundearekin lotutako edozein egintzaren fede emateko
- hauteskunde-batzordeetako kideak
- instrukzio-epaileak eta horien eskuordeak
- polizia-indarrak.
- administrazioaren ordezkariak diren pertsonak
- hauteskunde-materiala egon dadin bermatzeko ardura dutenak.

L) HEDABIDEAK HAUTESKUNDE-KOLEGIO EDO HAUTESLEKUETAN EGOTEA.

Hedabide akreditatuek hauteslekuetan bozketa egiten ari den bitartean irudi orokor bat har dezakete, beti ere pertsona jakin batzuen irudiak bigarren mailako gisa agertzen badira. Arau hori ez da bete behar pertsona horiek kargu publikoa edo entzute handiko edo garrantzi publikoko lanbidea dutenean, baldin eta haien irudiak ekitaldi publiko batean edo jendaurrean zabalik dauden tokietan hartzen badira. Hautesleei elkarriketak hauteslekuetatik kanpo egin behar zaizkie.





IV. BOTO-ZENBAKETA

A) BOTO-ZENBAKETA PUBLIKOA DA.

Aurreko lan guztiak amaituta, lehendakariak bozketa amaitu dela esango du eta boto-zenbaketa hasiko da. Publikoa da eta nahi duten guztiak egon daitezke.

Lehendakariak agindu dezake hauteslekua husteko, ordena nahastu dela eta boto-zenbaketa ezin dela egin uste badu.

Kasu horretan hauteslekuaren barruan jarrai dezakete hauek:

- mahaietako kideak
- artekariak eta ahaldunak
- hautagaitzen lurralde-ordezkariak
- notarioak
- polizia-indarrak
- hauteskunde-batzordeetako kideak
- instrukzio-epaileak eta horien eskuordeak
- administrazioaren ordezkariak diren pertsonak

B) BOTO BALIOGABEAK ETA ZURIAK.

1. Botoa baliogabea da, baldin eta:

- Botoaren boto-paperak edo gutun-azalak eredu ofizialari jarraitzen ez badio.
- Boto-papera baino ez badago, gutun-azalik gabe.

- Gutun-azalaren barruan hautagaitza desberdinetako boto-paperak badaude. Gutun-azalaren barruan hautagaitza beraren aldeko boto-paper bat baino gehiago egonez gero, hautagaitza horren aldeko boto baliodun bakarra zenbatu behar da.
- Boto-paperean hautagaitzaren barruko hautagaien izenak aldatu, gehitu edo zirriborratu badira edo hautagai horien ordena aldatu bada.
- Botoaren barruan irainak edo botoarekin zerikusirik ez duten adierazpen edo oharra idatzita badaude.
- Boto-papera mahaiarena ez den beste hautesbarruti bati badagokio.
- Gutun-azalek kanpoaldean ezaupideak badaramatzate.
- Botoak borondatez edo nahita egindako aldaketak baditu. Hala ere, boto-paperak seinaleren edo markaren bat izan arren, **boto hori ez da baliogabea eta baliodun gisa konputatu behar da**, beti ere botoa noren aldekoa den argi eta garbi badago. Boto-paperak hautagaietako baten ondoan seinale, gurutze edo ikoroski bat badauka, boto hori ere balioduna da, baldin eta marka horiek boto-paperaren konfigurazioa nahastu dutela edo zerrendako hautagaietako baten aurkako gaitzespenik adierazten dutela pentsarazteko behar besteko garrantzirik ez badute.

Baliogabetzat jotako botoak edo erreklamazioren bat eragin dutenak mahaiko kideek sinatu behar dituzte eta 1 zk.ko gutun-azalean gorde.

2. Boto zuria da, baldin eta:

- Gutun-azalaren barruan boto-paperik ez badago.
- Legez erretiratutako hautagaitza baten aldekoa bada.

C) BOTO-ZENBAKETARAKO PROZEDURA.

Lehendakariak boto-zenbaketari hasiera emango dio hauteskontzitik gutun-azalak banan-banan ateratzen. **ireki ahala ahoz gora irakurriko du boto bakoitza zer hautagaitzaren aldekoa den.** Lehendakariak boto-papera erakutsi behar die mahaiko kideei, artekariari eta ahaldunei.

Boto-zenbaketa etenik gabe egingo da.

Boto-zenbaketa amaituta, hauteskontzitik ateratako gutun-azalen kopurua eta zerrenda zenbakidunean erregistratutako hautesleen kopurua bat datozen ikusiko da. Bi kopuru horiek berdinak izan behar dira. Hala ez bada, bilkura-aktan (42 orr.) intzidentzia gisa jasoko dira zenbat gutun-azal atera diren hauteskontzitik eta zenbat hautesle erregistratu diren zerrenda zenbakidunean.

Boto-zenbaketan, notario batek edo hautagaitza baten ordezkari edo kide batek boto-paperaren edukari buruz zalantzarik badu, azter dezake.

Boto-zenbaketa amaitua, lehendakariak protestarik dagoen galdetuko du. Mahaia osatzen dutenek protestei buruzko erabakiak gehiengoz hartu behar dituzte.

D) MAHAIKO EMAITZAK ALDARRIKATZEA.

Boto-zenbaketa amaituta eta protesten gaineko erabakiak hartu ondoren, **lehendakariak emaitza ahoz gora esan behar du** eta datu hauek ere eman:

- zenbat hautesle dauden errolda-zerrendan
- zenbat boto-emaile dauden erregistratuta boto-emaileen zerrenda zenbakidunean
- boto baliogabeen kopurua
- boto baliodunen kopurua
- boto zurien kopurua
- hautagaitza bakoitzaren alde zenbat boto dauden

Mahaiak egiaztatu behar du:

- Mahaiko zerrenda zenbakidunean **erregistratutako boto-emaileen kopurua eta boto baliodunen eta baliogabeen arteko batura berdinak direla.**
- Boto baliodunen kopurua eta hautagaitzek lortutako botoen eta boto zurien arteko batura berdinak direla.

E) BOTO-ZENBAKETAREN BEHIN-BEHINEKO JAKINARAZTEA.

Mahaiak boto-zenbaketaren behin-behineko jakinaraztea bete behar du:

- Ale bat **Administrazioaren ordezkariari eman behar zaio**, ordezkari gisa akreditatu ondoren.

- Beste ale bat **hauteslekuaren sarreran jarri behar da** jendaurrean.
- **Jakinaraztearen beste ale batzuk eskatzen duten hautagaiei, ahaldunei edo artekariiei** emango zaizkie. Hautagaitza bakoitzeko jakinarazte bakarra eman behar da.

F) BILKURA-AKTA.

Ondoren, bilkura-akta (42 orr.) idatzi behar da eta horretan idatzi behar dira hauek:

- erroldatutako hautesleen kopurua
- boto-emaileen kopurua: atera diren bozketako gutun-azalen kopuruaren berdina izan behar da
- boto baliogabeen kopurua
- boto baliodunen kopurua: hautagaitzek lortutako botoen eta boto zurien arteko baturaren berdina izan behar da
- boto zurien kopurua
- hautagaitzek lortutako botoen kopurua
- mahaiko zerrenda zenbakidunean erregistratutako boto-emaileen kopurua guztira
- zenbat errolda-ziurtagiri espezifiko aurkeztu diren
- zenbat epai judizial aurkeztu diren
- mahaiko erroldako zerrendan inskribatuta egon ez arren, mahaian bozkatu duten artekarien kopurua

Bilera-aktan intzidentziak, protestak eta erreklamazioak ere jaso behar dira. Baita mahaiaik hartutako erabaki arrazoituak eta boto partikularrak ere.

Bilkura-aktari artekarien izendapen-orriak erantsi behar zaizkio edo, horiek ezear, artekariiek lehendakariari emandako egiaztagutunak.

Kopiak banatuko zaizkie eskatzen duten hautagaitzen ordezkariiei, hautagaiei, ahaldunei eta artekariiei. Hautagaitza bakoitzeko akta bakarra emango da.



V. DOKUMENTAZIOA PRESTATZEA ETA ENTREGATZEA

Hautestontzian egon diren boto-paperak bertan dauden pertsonen aurrean deuseztatu behar dira **Hauek ez dira deuseztatu behar**:

- boto baliogabeak
- erreklamazioa edo zalantza eragin duten botoak

Boto-paper horiek **lehendakariak eta bi bokalek sinatu behar** dituzte. Horiek bilkura-aktari erantsi behar zaizkio eta 1 zk.ko gutun-azalean sartu.

A) DOKUMENTAZIOA 4 GUTUN-AZALETAN BANATZEA.

Mahaiak dokumentazioa **4 gutun-azal marroietan** (44 orr.) banatu behar du.

· **1 zk.ko gutun-azalean:**

- mahaiaren eraketa-akta originala (40 orr.)
- bilkura-akta originala (42 orr.)
- mahaiko hautesleen errolda-zerrenda
- boto-emaileen zerrenda zenbakiduna (43 orr.)
- boto baliogabeak edo erreklamazioa edo zalantza eragin dutenak
- aurkeztutako errolda-ziurtagiriak eta epai judizialak
- izendapen-orriak edo artekarien egiaztgutunak

• **2, 3 eta 4 zk.ko gutun-azaletan:**

- mahaiaren eraketa-aktaren kopia (40 orr.)
- bilkura-aktaren kopia (42 orr.)

Gutun-azalak itxi ondoren, **lehendakariak, bokalek eta artekariak** gainean sinatu behar dituzte, **sinadura gutun-hegalen gainerik idatziz.**

B) DOKUMENTAZIOA EPAITEGIAN ENTREGATZEA.

Lehendakariak, bokalak eta nahi duten artekariak mahai dagokion lehen auzialdiko epaitegira edo bake-**epaitegira joango dira lau gutun-azalak entregatzera.**

Epaileak lau gutun-azalak sinatuko ditu, sinadura gutun-hegalaren gainerik idatziz. Ondoren, epaileak lehendakariari dokumentazioa **hartu izanaren agiria emango dio** eta horretan agertu behar da zein egunetan eta zein ordutan entregatu den (45 orr.).



 **A21**
2024
hauteskundeak
elecciones



Eranskina

ERANSKINA

HAUTESKUNDE-MAHAIAN EGONGO DIREN DOKUMENTUEN EREDUAK

- HAUTESKUNDE-MAHAIAREN ERAKETA-AKTA
(EREDUA: EHDM/8.1)
- HAUTESKUNDE-MAHAIAKO BOTO-ZENBAKETA BEHIN-BEHINEAN
JAKINARAZTEA (EREDUA: EHDM/8.2)
- HAUTESKUNDE-MAHAIAREN BILKURA-AKTA (EREDUA: EHDM/8.3)
- HAUTESLEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNA (EREDUA: EHDM/8.4)
(EREDUA: EHDM/8.4a)
- HAUTESKUNDE-MAHAIKO DOKUMENTAZIORAKO GUTUN-AZALA
(EREDUA: EHDM/8.5)
- EPAILEAK JASO IZANAREN AGIRIA MAHAIKO LEHENDAKARIA-
RENTZAT (EREDUA: EHDM/8.6)
- BOZKATU IZANAREN EDO BOTOA ONARTUA EZ IZANAREN
ZIURTAGIRIA (EREDUA: EHDM/8.8)
- MAHAIKO LEHENDAKARIARENTZAKO GUTUN-AZALA, MAHAI
HORRETAN DIHARDUTEN ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK
DITUENA (EREDUA: EHIA/5.2 ZURIA)
- MAHAIKO LEHENDAKARIARENTZAKO GUTUN-AZALA, MAHAI
HORRETAN ERROLDATUTAKO ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK
DITUENA (EREDUA: EHIA/5.3 HORIA)

HAUTESKUNDE-MAHAIKO DOKUMENTAZIORAKO GUTUN-AZALA (EREDUA: EHD/8.5)

SOBRE PARA LA DOCUMENTACION DE LA MESA ELECTORAL (MOD. EHD/8.5)

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2024
ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO 2024

Mod. EHD/8.5 Eredua

GUTUN-AZALAREN 2k. adierazi
 Indicar el N° de SOBRE

LURRALDE HISTORIKOA TERITORIO HISTORICO	UDALERRIA MUNICIPIO	BARNUTIA DISTRITO	AZALA SECCION	MANAIA MESA
--	------------------------	----------------------	------------------	----------------

Alapatu Hauteskunde-mahaiko, lehenbaiterik, bostetik eta artetik, **no epailea** **ZIURTATZEN DUGU**, Gutun-azalak, goian adierazitako zerbaita, honako hau daukela:

Si Juez o Síes, Juzes de **no epailea** **CERTIFICAMOS**, Que el sobre con el número arriba indicado contiene:

1 GUTUN-AZALA

- Hauteskunde-mahaia eratzeako aktaren originala
- Bikura-aktaren originala
- Hautesle-errolaren zerrenda zurratua
- Hautesle-errolaren kopia
- Gordetako boto-hartelak
- Aurkezitako Erroldako ziurtagiriak eta epaileen epaiak - Atekaririk izendatzeko orriak

- Original del Acta de Constitución de la Mesa Electoral.
- Original del Acta de la Sesión.
- Lista de electores.
- Lista numerada de Votantes.
- Papeletas de votación reservadas.
- Certificaciones censales y sentencias judiciales aportadas. - Hojas de designación de interventores e interventoras

2, 3 eta 4 GUTUN-AZALAK

- Hauteskunde-mahaia eratzeako aktaren hitzez hitzezko kopia
- Bikura-aktaren hitzez hitzezko kopia

- Copia literal del Acta de Constitución de la Mesa Electoral
- Copia literal del Acta de la Sesión

ORDEZKARIAK / ANAIDUNAK
 REPRESENTANTES / APODERADOSAS

BOKALAK
 VOCALES

LEHENAKARIA
 PRESIDENTE O PRESIDENTA

EPAILEAK JASO IZANAREN AGIRIA MAHAIKO LEHENDAKARIARENTZAT
RECIBO DEL JUEZ O JUEZA AL PRESIDENTE O PRESIDENTA DE LA MESA ELECTORAL

LURRALDE HISTORIKOA TERRITORIO HISTORICO	UDALERRIA MUNICIPIO	BARRUTIA DISTRITO	ATAZA SECCION	MAHAIA MESA
---	------------------------	----------------------	------------------	----------------

Lehen aipatu Hauteskunde-mahaia eman dizkit, gaurko eguneko **.....**etan, LAU gutun-zaletan eta zuzendaritzako mahaiko kideek haurre dutela zurratzen dute:

A las horas **.....**del día de la fecha he recibido de la Mesa Electoral antes reseñada, CUATRO sobres cerrados, en cuyo exterior figo o las componentes de la mesa indicada certificar que contienen:

- 1 GUTUN-AZALA**
- Original del Acta de Constitución de la Mesa Electoral.
- Bilkura-aktaren originala
- Hautesle-errolaren zerrenda ziurtagia
- Hautesleen zerrenda zenbakiduna.
- Gortetako boto-kartelak
- Aurkezutako Errolaiko zurrargirik eta epalteen opaia
- Aterkiarik izendatzeko orriak

- SOBRE Nº 1**
- Original del Acta de Constitución de la Mesa Electoral.
- Original del Acta de la Sesión.
- Lista certificada del Censo Electoral.
- Lista numerada de Votantes.
- Papeletas de votación reservadas.
- Certificaciones censales y sentencias judiciales aportadas.
- Hojas de designación de Interventores o Interventoras

- 2, 3 eta 4 GUTUN-AZALAK**
- Hauteskunde-mahaia erabeko aktaren hitzez hitzezko kopia
- Bilkura-aktaren hitzez hitzezko kopia

- SOBRES Nº 2, 3 y 4**
- Copias literal del Acta de Constitución de la Mesa Electoral
- Copia literal del Acta de la Sesión

Udalerria eta eguna

Municipio y fecha

.....

EL JUEZ O JUEZA **EPAILEA**

BOZKATU IZANAREN EDO BOTOA ONARTUA EZ IZANAREN
ZURTAGIRIA (EREDUA: EHD/8.8)

CERTIFICADO DE VOTACIÓN O DE NO HABER SIDO ADMITIDO EL
VOTO (MOD. EHD/8.8)

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2024 ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO 2024

Mod. EHD/8.8 Eredua

eman zuen Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeetan. hautesleak botoa
El elector/a

emitio su voto en las elecciones al Parlamento Vasco.

MAHAIKO LEHENDAKARIA / LA PRESIDENTA O PRESIDENTE

Hauteskunde-mahai honetan agertu zen Eusko Legebiltzarrerako Hauteskondeetan botoa hauteslea
emateko, baina ez zaio onartu honengatik:

El elector/a
comparció en esta Mesa electoral para emitir su voto a las Elecciones al Parlamento Vasco, sin que
pudiera ser aceptado por.

	Ez dago Erroldian Inskribaturik No figurar inscrito/a en el Censo
	Identitatea behar bezala ez justifikatzea No justificar suficientemente su identidad
(*)	Bozketa eten egin da Suspensión de la votación
	Mahaia eratu ez izana No constitución de la Mesa

MAHAIKO LEHENDAKARIA
EL PRESIDENTE O PRESIDENTA

(*) Adieraz bedi gurutze batez dagokiona / señálese con una cruz lo que proceda

MAHAIKO LEHENDAKARIARENZAKO GUTUN-AZALA. MAHAI HORRETAN DIHARDUTEN ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK DITUENA (EREDUA: EHIA/5.2 ZURIA)

SOBRE PARA LA PRESIDENCIA DE LA MESA CON LAS CREDENCIALES DE LOS INTERVENTORES O INTERVENTORAS QUE ACTUAN EN LA MISMA (MOD. EHIA/5.2 COLOR BLANCO)

MAHAIKO LEHENDAKARIARENZAKO GUTUN-AZALA. MAHAI HORRETAN ERROLDATUTAKO ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK DITUENA (EREDUA: EHIA/5.3 HORIA)

SOBRE PARA LA PRESIDENCIA DE LA MESA CON LAS CREDENCIALES DE LOS INTERVENTORES O INTERVENTORAS QUE ESTAN CENSADAS EN LA MISMA (MOD. EHIA/5.3 COLOR AMARILLO)

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 20____
ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO 20____

PRESAZKO ZIURTATUA
CERTIFICADO URGENTE

ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK BIDALTZEA
REMISION CREDENCIALES DE LOS INTERVENTORES E INTERVENTORAS

ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK BIDALTZEA
REMISION CREDENCIALES DE LOS INTERVENTORES E INTERVENTORAS

UDALERRIA
MUNICIPIO
BARRUTIA
BARRIO
AKALA
SECCION
MAHAI
MESA

UDALERRIA
MUNICIPIO
BARRUTIA
BARRIO
AKALA
SECCION
MAHAI
MESA

MAHAIAN JAROTUEKO IZENATU BIREN ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK; MAHAI HORRETAN BOTOA EMAN BEZAKETE

CREDENCIALES DE INTERVENTORES E INTERVENTORAS ACTUAR EN LA MESA Y QUE PUEDEN VOTAR EN LA MISMA

BESTE MAHAI BATEAN JAROTUEKO ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK; MAHAI HORRETAN BOTA DUTE BOTORIK EMAN.

CREDENCIALES DE INTERVENTORES E INTERVENTORAS NO PUEDEN VOTAR EN ESTAMESA.

Mod. EHIA/5.2 Euzkadi

Mod. EHIA/5.3 Euzkadi

 **A21**
2024
hauteskundeak
elecciones